AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**ADMINISTAZIO-BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA** **Esp. Zkia: 2015ALHO0001**
**PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES**

| Administrazio-emakida | Concesión administrativa |
|---|---|
| **Xedea: Udalaren jabetzakoa den Azkoitiko udal-azokan kokatuta dauden bi salmenta-postu finkoren erabilera pribatiboa ematea** | **Objeto: El uso privativo de dos puestos fijos de venta del mercado municipal de Azkoitia, propiedad del Ayuntamiento** |
| **Jardunbidea: Irekia**<br>**Izapidea: ohikoa** | **Procedimiento: Abierto**<br>**Tramitación: ordinaria** |
| **Kanona: 430,00** € /hilean<br>**Behin-betiko bermea:** 4.600€<br>**Iraupena:** 20 urte (50 urte arteko luzapena)<br>**Esleipenerako irizpideak:**<br>— Baldintza ekonomikoak hobetzea<br>— Jarduerari loturiko hobekuntzak<br>— Egoera soziala, familiakoa, ekonomikoa eta lanekoa (langabezia egoera, karga familiarra, seme-alabak kargura eta elbarriak)<br>— Enplegua sortzea eta autoenplegua sustatzea<br>— Ingurumenari eta jasangarritasunari loturiko irizpideak<br>**Eskaerak aurkezteko epea:** | **Canon: 430,00** € /mes<br>**Garantía Definitiva:** 4.600€<br>**Duración:** 20 años (prórroga hasta 50 años)<br>**Criterios de adjudicación:**<br>— Mejora de las condiciones económicas<br>— Mejoras relacionadas con la actividad<br>— Situación social, familiar, económica y laboral (situación de desempleo, carga familiar, hijos/as a cargo y minusválidos)<br>— Creación de empleo y promover el autoempleo<br>— Criterios sostenibles y medioambientales<br>**Plazo de presentación de solicitudes:** |


**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

| | |
|---|---|
| Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren iragarkia argitaratutako hurrengo egunetik zenbatzen hasi eta 30 egun naturaleko epean | En el plazo de 30 días naturales, a contar desde el día siguiente al de publicación del anuncio de licitación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa |

~~ADMINISTAZIO-BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA Esp. Zkia: 2015ALHO0001~~

**PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES**

**AZKOITIKO UDAL AZOKAKO BI SALMENTA-POSTU FINKOREN ADMINISTRAZIO EMAKIDAREN KONTRATUA PROZEDURA IREKIAREN ETA IZAPIDETZE ARRUNTAREN BIDEZ ESLEITZEKO LIZITAZIO PUBLIKOA ARAUTU BEHAR DUTEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA**

**PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES QUE HA DE REGIR LA LICITACIÓN PARA LA ADJUDICACIÓN, MEDIANTE PROCEDIENTO ABIERTO Y TRAMITACIÓN ORDINARIA, DEL CONTRATO DE CONCESION ADMINISTRATIVA MEDIANTE LICITACIÓN PÚBLICA DE DOS PUESTOS FIJOS DE VENTA DEL MERCADO MUNICIPAL DE AZKOITIA.**

## XEDAPEN OROKORRAK

## DISPOSICIONES GENERALES

### 1.- EMAKIDAREN XEDEA ETA IZAERA

Emakidaren xedea da Udalaren jabetzakoak diren Azkoitiko udal-azokan kokatuta dauden eta jarraian zehazten diren **bi salmenta-postu finkoaren erabilera pribatiboa ematea**, prozedura irekiaren eta ohiko izapidetzearen bidez; erabilera udal-jabari publikoaren zati bat hartzean datza, Azkoitiko Azokaren Araudian jasota dauden jarduereetan.

Postuen ezaugarriak ondokoak dira:

### 1.- OBJETO Y NATURALEZA DE LA CONCESION

El objeto de la concesión es el uso privativo de **dos puestos fijos del mercado municipal de Azkoitia,** que se detallan a continuación, propiedad del Ayuntamiento a través del procedimiento abierto y tramitación ordinaria, consistente en la ocupación de una parte del dominio público municipal, para su empleo en las actividades recogidas en el Reglamento del Mercado de Azkoitia.

Las características de los puestos son los siguientes:



**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

1.- Postu itxia, **31,96 m2**-ko azalerarekin (pleguei eranstzen zaien planoan ikus daiteke).

2.- Postu itxia, **34,05 m2**-ko azalerarekin (pleguei eransten zaien planoan ikus daiteke).

Klausula hauen bitartez arautu behar den kontratuak administrazio-izaera du eta, hala izanik, sortzen diren arazoak administrazio-bidean argituko dira; bide hori agortutakoan, administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

**2.- EMAKIDAREN XEDEA DEN JABARI PUBLIKOA**

Azkoitiko Udalaren titulartasunekoa den Azkoitiko azokako salmenta-postuari emango zaio emakida; aipatutako salmenta-postua era grafikoan jasota daude agiri honen eranskinean. Adierazitako postua emakidarik eta baimenik gabe dago.

Emakida-eskubideak erabiltzeak ez du berekin emakidadunari jabari publikoko ondareen gaineko jabetza-eskubide edo -ahalmenak transferitzea.

Ez da beharrezkoa izango baimen berezirik izatea kontratua eraginkor eta baliozkoa izan dadin; kontratua esleitzean, administrazio-agirian jasoko da, bete eta hobetzeko.

**3.- EMAKIDAREN NONDIK NORAKOA**

Emakidaren bidez, eskaintzen diren postuetan

1.- Puesto cerrado, con una superficie de **31,96 m2** (se adjunta el plano al presente Pliego).

2.- Puesto cerrado, con una superficie de **34,05 m2** (se adjunta el plano al presente Pliego).

El contrato que se regula por las presentes cláusulas, tiene naturaleza administrativa, y como tal, las cuestiones que se planteen se dilucidarán en esta vía, una vez agotada quedará expedita la vía contencioso-administrativa.

**2.- DOMINIO PUBLICO OBJETO DE CONCESION**

La concesión recaerá en el puesto del Mercado de Azkoitia, cuya titularidad corresponde al Ayuntamiento de Azkoitia y que se constata gráficamente en el anexo del presente Pliego. El puesto señalado se encuentra libre de concesiones y autorizaciones.

El ejercicio de los derechos de concesión no conlleva la transferencia al concesionario de derechos o facultades de propiedad sobre los bienes demaniales.

No es necesaria ninguna autorización especial para la eficacia y validez del contrato que, en virtud de la adjudicación, se haya de formalizar en documento administrativo para su cumplimiento y perfección.

**3.- ÁLCANCE DE LA CONCESIÓN**

La concesión comprende la prestación del servicio de mercado en los puestos objeto de licitación, conforme a la Ordenanza municipal


**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

merkatu-zerbitzua eskainiko da, Azkoitiko Udalaren Azokari buruzko Udal Ordenantzaren eta bertan egin litezkeen aldaketen arabera.

de Mercados del Ayuntamiento de Azkoitia, y las modificaciones que ésta pueda tener en el futuro.

Udala ahaleginduko da postu bat baino gehiago dituen saltzailerik edo saltzailearen ezkontide edo seme-alabarik azoka berean egon ez dadin; hala ere, Udalak beretzat gordetzen du saltzaileren bati postu bat baino gehiago esleitzeko eskubidea, egoera ikusita komenigarria bada. Emakidaren kariaz, postuen esleipendunak behartuta egongo dira postuak ustiatzera.

El Ayuntamiento procurará que en un mismo mercado, ningún vendedor, así como su cónyuge e hijos, posea más de un puesto, aunque el Ayuntamiento se reserva el derecho de adjudicar más de un puesto a un vendedor si las circunstancias lo aconsejasen. En virtud de la concesión, los adjudicatarios de los puestos quedan obligados a su explotación.

**Ondasunaren emakidadunak ezin izango du kontratu honen xedea den higiezinean obrarik edo instalaziorik egin, aldez aurretik Azkoitiko Udalak horretarako baimena eman gabe.**

**El concesionario del bien no podrá realizar en el inmueble objeto del presente contrato, obras e instalaciones sin que previamente hayan sido autorizadas por el Ayuntamiento de Azkoitia.**

## 4.- EMAKIDAREN IRAUPENA

**4.1.** Jabari publikoko emakidaren iraupena **20 urtekoa** izango da, emakidaren kontratua izenpetzen den unetik zenbatzen hasita. Alderdiek emakidaren iraunaldia amaitu baino lehen hala adostuta, iraunaldia 50 urte bete arte luzatu ahal izango da.

Luzatzeko erabakia hartzeko prozedura honako hau izango da:

- Esleipendunak udaletxean aurkeztuko du luzatzeko eskabidea, emakidaren iraunaldia amaitu baino hiru hilabete lehenago gutxienez.
- Dagokion zerbitzu teknikoak

## 4.- DURACION DE LA CONCESION

**4.1**. La duración de la concesión demanial será de **20 años**, a computar desde la firma del contrato de concesión. Por acuerdo entre las partes adoptado con anterioridad a la finalización del periodo de concesión, el periodo de vigencia del mismo puede prorrogarse hasta un total de 50 años.

El procedimiento para el acuerdo de prórroga será el siguiente:

- El adjudicatario presentará al Ayuntamiento la solicitud de prórroga con una antelación mínima de tres meses a la finalización del periodo de concesión.
- El servicio técnico correspondiente informará sobre la solicitud de prórroga.
- El órgano de contratación resolverá



**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

luzamendu-eskaerari buruzko informazioa emango du.

- Kontratazio-organoak ebatziko du luzamendu-eskaerari buruz. Ebazpen hori irmoa izango da, eta amaiera emango dio administrazio-bideari.

Udalak epe hori amaitutakoan, edo amaitu baino lehen, emakida eraginik gabe uzteko ahalmena izango du, esleitutako postu jakin hori udal-azokatik kenduta, edo aldatuta edo erreskatatuta, edo interes publikokoak diren beste arrazoi batzuk direla medio, egokiak diren legezko izapideak egin eta gero, eta, hala badagokio, kalte-ordainketak egin eta gero.

Emakidaren xedea den erabilera pribatiboa egiteko baimenak iraungi ahal izango dira titularrak betetzen ez baditu agiri honetan edo udal-azoka arautzen duen udal-ordenantzan adierazten diren betebeharrak.

Baimena edozein arrazoirengatik bukatzen denean, titularrak erabiltzen duen postua libre utzi beharko du eta **hartu zuen egoera berean**, udalari itzulita. Hala egiten ez bada, udal-administrazioak erabaki dezake Udalak berak auzia administrazio-bidean jartzea.

## 5.- EMAKIDEN ESKUALDATZEA

Horniduraren udal-azoketan salmenta-postuen emakidak egiteak sorrarazten dituen eskubideak pertsonalak eta bizien arteko ekintzen bidez besterenezinak dira. Postu bat eskualdatzea baimenduko ba, bakar-bakarrik, titularrak erretiroa hartzen badu, eta zuzeneko senide bati egin beharko zaio, jarduera berarekin jarraituz

la solicitud de prórroga. Dicha resolución será firme y pondrá fin a la vía administrativa.

Expirado este plazo, o antes de él, el Ayuntamiento posee la facultad de dejar sin efecto la concesión, por supresión, modificación o rescate del Mercado Municipal, del puesto concretos adjudicado u otra causa de interés público, previa realización de los trámites legales adecuados y pagos de las indemnizaciones si se diese el caso.

Las concesiones del uso privativo podrán extinguirse por el incumplimiento de su titular de las obligaciones comprendidas en este Pliego o que se señalen en la Ordenanza Municipal reguladora del Mercado Municipal.

Al término de la autorización, por cualquier causa, el titular tendrá que dejar libre y **en la misma situación,** el puesto objeto de utilización a disposición del Ayuntamiento. De otro modo, la Administración Municipal podrá acordar ejecutar ella misma el lanzamiento en vía administrativa.

## 5.- TRANSMISION DE LAS CONCESIONES

Los derechos que otorga la concesión del puesto de venta en los mercados municipales de abastos son personales e intransferibles por actos entre vivos. Tan solo se permitirá la transmisión de un puesto en caso de jubilación del titular y a un familiar directo y para el caso de que continúe con la misma actividad. En caso de fallecimiento se transmitirá el puesto a favor de quien resultase ser heredero del titular


**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

gero, betiere. Emakidaduna hiltzen bada, postuaren titularraren oinordekoari edo legatu-hartzaileari eskualdatuko zaio salmenta-postua. Hala eta guztiz ere, heriotzaren ondoriozko egintzen bidezko eskualdatze-eskubideak Azokei buruzko Udal Ordenantzaren 12. artikuluan eta hurrengoetan araututa daude.

**6.- LIZITATZAILEEN IZAERA**

**6.1.** Prozedura ireki eta izapidetze arruntaren bidezko lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute espainiarrak edo atzerritarrak diren pertsona natural edo juridikoek, baldin eta beren kaudimen ekonomiko nahiz finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan bereziki galarazten diren egoeretan ez badaude. Ezin izango dira postuaren titular izan artikuluen salmentan behin eta berriro iruzurra egin dutenak, azken zehapena lizitazioa jendaurrean jarri baino urtebete lehenagoko epearen barruan ezarri baldin bazaie.

Lizitazioan parte hartzen duten pertsona fisikoek **elikagaien manipulatzaile-agiria** izan beharko dute, eta pertsona juridikoak badira parten hartzen dutenak, beren ordezkoek euren gain izango dute postuei atxikitako langileek aipatutako manipulatzaile-txartela izateko ardura, **<u>egiten duen jarduerarako beharrezkoa denean.</u>**

Pertsona juridikoei kontratuak esleituko zaizkie, bakar-bakarrik, bertan jasotako prestazioak

o legatario del puesto. No obstante, los derechos de transmisión por actos mortis causa está regulado por la Ordenanza Municipal de mercados, arts. 12 y siguientes.

**6.- CONDICIÓN DE LOS LICITADORES**

**6.1.** Podrán concurrir a esta licitación por el procedimiento abierto y tramitación ordinaria, las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras, que tengan plena capacidad de obrar y acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional en los términos establecidos por este Pliego, y no estén comprendidas en alguno de los supuestos de prohibición señalados en el artículo 60 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público. No podrán ser titulares del puesto los reincidentes en faltas de defraudación a la venta de artículos, cuando la última sanción les hubiese sido impuesta dentro de un periodo de un año anterior al anuncio de la licitación.

Las personas físicas que concurran deberán tener el **carnet de manipulador de alimentos**, y en el supuesto de que concurrieran personas jurídicas, sus representantes serán los responsables de que el personal adscrito a los puestos, tenga el citado carnet de manipulador/a, **<u>siempre y cuando la actividad que desarrolle así lo requiera</u>.**

Las personas jurídicas sólo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean


**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

pertsona horiei dagozkien xede, helburu edo jarduera-esparruaren barruan badaude, beren estatutu edo sorrera-arauen arabera. Era berean, banakako enpresari bat esleipenduna suertatuz gero, jardueran iraunkortasunez aritzen diren langileak eta jarduerari iraunkortasunez atxikitako materialak dituen erakunde bat izan beharko du, eta jarduerak ere kontratuaren xedearekin lotura zuzena izan beharko du.

Esleipendunak, senideek eta/edo enplegatuek beren lan-egoera formalizatu beharko dute, eta nahitaezkoa izango da aurreikuspen eta gizarte-segurantzako betebeharrak betetzea. Pertsona horiek ez dute Azkoitiko Udalarekin enpleguaren edo eginkizunaren harreman juridikorik izango, eta ezin izango dute esleipendun izatea alegatu eskubideen itxaropenak edukitzeko, ezta etorkizunean egin litezkeen kontratazioetan lehentasuna izateko ere. Era berean, pertsona esleipendunak egiaztatu beharko du nahikoa eskarmentua duela agiri honen xedea denaren antzeko lanetan. Organo kontratatzaileak ebatziko du eskarmentu horren nahikotasuna.

**6.2.** Salmenta-postuen emakida-kontratu bakoitza pertsona edo erakunde bakar bati emango zaio. Alabaina, bi pertsona edo erakunderi edo gehiagori eman ahal izango zaie, baldin eta aldi baterako enpresarien batasuna eratzen badute eta proposamen-idazkian honakoak egiaztatzen badituzte: taldekideen izenak eta egoerak, kide edo erakunde bakoitzak batasunean duen partaidetza, kontratuaren esleipendunak suertatuz gero aldi baterako enpresarien batasuna legez eratzeko konpromisoa; era berean, kontratuaren indarraldi osoan eta iraungi arte, batasunaren

propios. Asimismo si fuera un empresario individual deberá disponer de una organización con elementos personales y materiales dedicados de modo permanente a la actividad que, de igual modo, tenga relación directa con el objeto del contrato.

El adjudicatario, familiares y/o empleados, deberán formalizar debidamente su situación laboral, siendo preceptivo el cumplimiento de las obligaciones de previsión y seguridad social. Ninguno de ellos adquirirá relación jurídica de empleo o función con el Ayuntamiento de Azkoitia, y tampoco podrá ser alegado como determinante de expectativas de derechos, ni siquiera el de preferencia para futuras contrataciones. Igualmente deberá acreditar experiencia suficiente en trabajos de análoga naturaleza al que es objeto del presente Pliego. La suficiencia de dicha experiencia será enjuiciada por el órgano contratante.

**6.2.** Cada uno de los contratos concesionales por puestos se otorgará con una sola persona o entidad. No obstante podrá otorgarse con dos o más personas o entidades que constituyendo una Unión Temporal de Empresarios, acrediten en el escrito de proposición los nombres y circunstancias de la agrupación, la participación de cada persona o entidad en ésta, el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarios del contrato y designen la persona o entidad que durante la vigencia del contrato hasta su extinción, ostentará la representación de todos ellos frente a la Administración Municipal, con poderes bastantes para ejercitar los derechos y cumplir


**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

ordezkaritza duen pertsona bat izendatuko dute, kontratuaren ondorioz eta kontratua iraungi arte batasunak dituen eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko nahikoa ahalmen izango duena. Pertsona edo erakunde bakoitzak bere burua modu solidarioan behartzen du Udalbatzaren aurrean, eta Udalbatzak batasunaren aurrean dituen eskubideak zatiezinak izango dira, edonola ere.

**6.3.** Enpresariaren **kaudimen ekonomiko eta finantzarioa** arrazoituko da, honako erreferentzia hauek aurkeztuta:

1. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzen duten finantza-erakundeen txostena, edo, hori ezean, lanbide-arriskuen ondoriozko kalte-ordaineko asegurua.
2. Sozietateek urteko kontuak aurkeztu beharko dituzte, edo kontu horien laburpena.
3. Negozio guztien kopuruari eta azken hiru ekitaldietan egindako zerbitzuei buruzko adierazpena.

Lizitatzailearen **kaudimen teknikoa** arrazoitzeko, erreferentzia hauek aurkeztuko dira:

1. Enpresarien eta enpresako Zuzendaritzako kideen titulu akademikoak eta lanbide-tituluak, eta bereziki kontratua gauzatzeko ardura duten langileen tituluak.
2. Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, zenbatekoak, datak eta lan horien onura publiko edo pribatuak adierazita.
3. Enpresariak kontratua burutzeko dituen material, instalazio eta ekipo teknikoaren deskribapena.

las obligaciones que del contrato se deriven hasta la extinción del mismo. Cada persona o entidad se obliga solidariamente respecto de la Corporación, cuyos derechos frente a la agrupación serán en todo caso indivisibles.

**6.3.** Se justificará la **solvencia económica y financiera** del empresario, mediante la presentación de las siguientes referencias:

1. Informe de instituciones financieras acreditativo de la solvencia económica y financiera o, en su defecto, seguro de indemnización por riesgos profesionales.
2. Presentación, para las sociedades, de las cuentas anuales o extracto de las mismas.
3. Declaración relativa a la cifra de negocios global, y servicios realizados en el curso de los tres últimos ejercicios.

Se justificará la **solvencia técnica** del licitador mediante la presentación de las siguientes referencias:

1. Titulaciones académicas y profesionales de los empresarios y del personal de dirección de la empresa, y en particular, del personal responsable de la ejecución del contrato.
2. Relación de los principales servicios o trabajos realizados en los últimos tres años, que incluya importe, fechas y beneficios públicos o privados de los mismos.
3. Una descripción del material, instalaciones y equipo técnico de que disponga el empresario para la realización del contrato.
4. Referencia de la experiencia empresarial en comercio.


**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

4. Merkataritzan duen enpresa-eskarmentua azaltzea.

## 7.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua behar bezala burutzen dela gainbegiratzeko, koordinatzeko, egiaztatzeko eta zaintzeko ardura Udal Administrazioarena izango da, eta aipatutako udal-administrazioak izendatutako kontratuaren arduradunaren bidez gauzatuko da.

Hauek izango dira kontratuaren arduradunaren eginkizunak:

- Itundutako prestazioa behar bezala emateko beharrezkoak diren baliabideak eta antolaketa exijitzea.
- Zerbitzua kalitatearen eta denboraren aldetik zuzentasunez gauzatzeko egokiak diren aginduak ematea.
- Zerbitzuaren kudeaketari dagokion harrera- edo onarpen-akta izenpetzea, kontratua likidatzearen ondorioetarako.
- Aurretiazko txostenak idaztea, jaso ahal izateko.
- Lana gauzatzean sortzen diren gorabeherei irtenbidea ematea.
- Agiri honetan ezarritako beste edozein.

Azkoitiko Udalak izendatutako pertsonek beteko dituzte kontratuaren arduradun-eginkizunak. Kontratuaren arduraduna ordezkatzen denean, horren berri emango zaio esleipendunari, ordezkapena gertatu eta lau egunen buruan.

## 7.- RESPONSABLE DEL CONTRATO

La supervisión, coordinación, comprobación y vigilancia de la correcta realización del contrato, será ejercida por la Administración Municipal a través del Responsable del contrato, designado por esta Administración Municipal.

Serán funciones del Responsable del contrato:

- Adoptar las decisiones y dictar las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta realización de la prestación pactada.
- Exigir la existencia de medios y organización necesaria para llevar a cabo adecuadamente la realización de la prestación pactada.

- Dar las órdenes oportunas para correcta ejecución del servicio en términos de calidad y tiempo.

- Suscribir el acta de recepción o conformidad de la gestión del servicio, a los efectos de liquidación del contrato.
- Formular los informes previos en orden a la recepción.
- Resolución de cuantas incidencias surjan en ejecución del trabajo.
- Cualquiera otra de las establecidas en el presente Pliego.

Las funciones de Responsable del contrato las ejercerá el personal designado por el Ayuntamiento de Azkoitia. Será puesto en conocimiento del adjudicatario la sustitución del Responsable del contrato, en el plazo de cuatro días a contar desde aquella en que se hubiera producido.



**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

## KONTRATUA BETETZEA

### 8.- EMAKIDAREN ESPARRUA

Emakidak barnean hartuko du kontratuaren xede den postuaren erabilera, proposatzaile bakoitzak bere eskaintzan aurkezten duen Jarduerari buruzko Memorian deskribatutako helburuaz; jarduera horniduraren udal-azokari dagokion jarduera ekonomikoa izango da, Udal Ordenantzan ezarritakoaren arabera, eta ezin izango da hortik kanpoko inolako jarduerarik burutu.

Salmenta-postuen titularrek emakida honen xede den jabari publikoko ondasunaren aprobetxamendu pribatiboa gozatuko dute, eta erabat bete beharko dituzte horniduraren udal-azokari buruzko arauak, ordutegi, jokaera, garbikuntza eta abarri dagokienez. Eskuduna den udal-funtzionarioak emango die arau horien berri, horniduraren udal-azokaren funtzionamenduan ohikoa denari jarraituz.

Era berean, osasun eta elikagaien trafikoari buruz indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko dituzte, eta zonako Osakidetzako arduradunak ikuskatuko ditu, hala dela egiaztatzeko.

**Egin beharreko jarduera abian jartzeko obrak eta instalazioak gauzatu behar izanez gero, beharrezkoa izango da Udalaren berariazko baimena eskuratzea; horrez gain, aginduzkoak diren udal-lizentziak eskuratu beharko dira, eta beharrezkoak diren zergak edo tasak ordaindu**

## CUMPLIMIENTO DEL CONTRATO

### 8.- ÁMBITO DE LA CONCESIÓN

La concesión comprenderá la utilización del puesto objeto del contrato para el uso descrito en la Memoria de la Actividad que indique cada proponente en su oferta, debiendo constituir una actividad económica propia de la Plaza Municipal de Abastos, de conformidad con lo establecido en la Ordenanza Municipal, y no pudiendo realizar ninguna otra actividad ajena a aquélla.

Los titulares de los puestos disfrutarán del aprovechamiento privativo del bien de dominio público objeto de esta concesión, con pleno sometimiento a las normas reguladoras del Mercado Municipal de Abastos en cuanto a horarios, comportamientos, limpieza, etc., y que el funcionario municipal competente les hará saber según la costumbre del funcionamiento del Mercado Municipal de Abastos.

Asimismo habrán de cumplir todas las disposiciones vigentes en materia de sanidad y tráfico de alimentos, siendo inspeccionados en este orden por el Responsable de la Sanidad de la Zona.

**En su caso, la ejecución de las obras e instalaciones necesarias para la puesta en funcionamiento de la actividad a desarrollar requerirá autorización municipal expresa, así como el otorgamiento de las preceptivas licencias municipales y el pago de los correspondientes impuestos o tasas.**


**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

**beharko dira.**

## 9.- UDALAREN AHALMENAK

Kontratu honi dagokionez, Udal Administrazioak izango ditu indarrean dagoen legediak onartzen dizkion ahalmenak, eta baita agiri honetan zehazten direnak ere.

Udalbatza Osoak, Tokiko Gobernu Batzordeak eta Alkatetza-Lehendakaritzak erabakiko dituzte, bakoitzari dagozkion eskumenak betez, ahalmen horiek gauzatzean burutu beharreko egintzak.

Azkoitiko Udalari dagokio emakidaren kontratua interpretatzea, eta Udaleko organoek emandako ebazpenak berehala bete beharko dira. Nolanahi ere, horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoak aurkezteko aukera egongo da.

Udalaren ardura da emakida zuzentzea eta kontrolatzea, eta, ahalmen horiek betez, emakida aldatu eta indargabetu dezake amaiera-epea iritsi baino lehen, baldin eta bat-bateko interes publikoko inguruabarrak gertatu eta neurri horiek hartu behar badira. **Nolanahi ere, emakida interes publikoaren arrazoiengatik baliogabetzeak ez du berekin izango emakidadunak kalte-ordainak jasotzeko inolako eskubiderik eskuratzea.**

## 10.- EMAKIDADUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Emakidak honako eskubide hauek ematen dizkio titularrari:

## 9.- FACULTADES DEL AYUNTAMIENTO

La Administración Municipal ostentará en relación con este contrato, las potestades que le reconoce la legislación vigente, y las que se especifiquen en este Pliego.

Los actos que se dicten en ejercicio de dichas potestades, serán adoptados en su caso, por el Ayuntamiento Pleno, la Junta de Gobierno Local y la Alcaldía-Presidencia, en el ámbito de sus respectivas competencias.

Corresponde al Ayuntamiento de Azkoitia la interpretación del contrato de concesión, debiéndose ejecutar con inmediatez las resoluciones dictadas por los órganos del mismo. No obstante, cabrá la posibilidad de presentar recursos contencioso-administrativos contra las mismas.

Corresponde al Ayuntamiento la dirección y el control de la concesión y, en el ejercicio de dichas facultades, puede modificar y resolver la concesión antes de su vencimiento, en caso de que circunstancias de interés público sobrevenidas obliguen a la adopción de dichas medidas. **No obstante, la revocación de la concesión por motivos de interés público no supondrá la adquisición por parte del concesionario de ningún derecho de indemnización.**

## 10.- DERECHOS Y OBLIGACIONES DEL CONCESIONARIO

La concesión otorga a su titular los siguientes derechos:

a) La utilización privativa y aprovechamiento pacífico de los bienes


**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

a) Emakidaren xede diren jabari publikoko ondasunak era pribatiboan erabiltzea eta era baketsuan aprobetxatzea.
b) Udal Administrazioak edo, hala badagokio, zerbitzuaren emakidadunak, azokako zerbitzu orokorrak egoera onean mantentzea.

c) Udal Administrazioak eta, hala badagokio, zerbitzuaren emakidadunak entzuna izatea eta behar bezalako arreta eskaintzea egiten dituen erreklamazio, eskaera eta iradokizun guztietan.

Emakidaren titularrak honako **betebehar** hauek bete beharko ditu:

**a) Alta emanda egotea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan.**
**b)** Erabilera-baimena egiaztatzen duen agiria edukitzea.
**c)** Salmenta-postuak eta biltegiak bere negozioko salgaiak eta objektuak saltzeko eta gordetzeko soilik erabiltzea.

**d)** Erabilitako postuak, obrak eta instalazioak egoera onean mantentzea.
**e)** Adierazitako orduetan salmentan etenik gabe jardutea, behar den hobezintasunaz eta arduraz.
**f)** Guztiz txukuna izatea bere garbitasunari dagokionez, eta lan egiteko bere jarduerari soilik dagozkion jantziak erabiltzea, garbitasun-egoera egokian.
**g) ELIKAGAIEN MANIPULATZAILE-AGIRIA edukitzea, egiten duen jarduerarako beharrezkoa denean.**

**h)** Postuak garbi egotea eta egoera egokian apainketa, higiene eta

de dominio público objeto de la concesión.
b) El mantenimiento en perfectas condiciones de los servicios generales del Mercado por la Administración Municipal o en su caso por concesionario del servicio.
c) Ser oído y debidamente atendido por la Administración municipal y, en su caso, el concesionario del servicio, en cuantas reclamaciones, peticiones y sugerencias pudiera formular.

La concesión conlleva para su titular las siguientes **obligaciones**:

**a) Estar de alta en el Impuesto de Actividades Económicas (I.A.E.)**
**b)** Estar en posesión del título acreditativo de la autorización de uso.
**c)** Usar los puestos y almacenes únicamente para la venta y depósito de mercancías y objetos propios de su negocio.
**d)** Conservar en buen estado los puestos, obras e instalaciones utilizados.
**e)** Ejercer la venta ininterrumpidamente, durante las horas señaladas, con la debida perfección y esmero.
**f)** Observar la máxima pulcritud en su aseo personal y utilizar en su trabajo vestuario exclusivo a su función y en correcto estado de limpieza.
**g) Estar en posesión de la tarjeta de MANIPULADOR DE ALIMENTOS, cuando la actividad que desarrolle así lo requiera.**
**h)** Cuidar de que sus respectivos puestos estén limpios y mantenidos en debidas condiciones de ornamento, higiene y


**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

osasungarritasunari dagokienez, batez ere salmenta egiten den ordutegi osoan.

**i)** Azokaren garbikuntzan, mantentze eta zaintze-lanetan laguntzea.
**j)** Kanona eta dagozkion gainerako ordainarazpenak ordaintzea.
**k) 300.000 €-ko erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat kontratatzea.**

**l)** Titularrak berak, senideek edo menpekoek azokako instalazioetan edo eraikinetan egiten dituzten kalte-galeren zenbatekoa ordaintzea.
**m)** Udalak emakida edo egindako jarduerari buruz eskatzen dituen datuak ematea.

**n)** Uda-zerga eta -ordainarazpenen ordainketa egiaztatzea, eskatzen den aldiro.
**o)** Jarduera arautzen duten azoken Ordenantzan eta gainontzeko araubide, arautegi eta abarretan zehaztutako gainerako betebeharrak betetzea.

## 11.- EMAKIDAREN ERRESKATEA

Udalak beretzat gordetzen du emakida amaitu baino lehen erreskatatzeko eskubidea, interes publikoko inguruabarrak kontuan izanda beharrezkoa denean. Udal Administrazioak ahalmen hori erabiliz gero, emakidadunari emakidaren kanonaren prezioa ordainduko zaio kalte-ordain gisa, eta era honetan egingo da:

- 1. urtetik aurrera gertatuz gero, emakidaren balioaren % 80.
- 2. urtetik aurrera gertatuz gero, emakidaren balioaren % 60.
- 3. urtetik aurrera gertatuz gero,

salubridad; especialmente durante todo el horario de venta.

**i)** Contribuir a la limpieza, conservación y vigilancia del mercado.
**j)** Satisfacer el canon y demás exacciones que le correspondan.
**k) Contratar una póliza de seguros de Responsabilidad Civil por un importe de 300.000 €**
**l)** Abonar el importe de los daños y perjuicios que el propio titular, sus familiares o dependientes causasen en las instalaciones o edificio del mercado.
**m)** Facilitar los datos que le solicite el Ayuntamiento, en relación con a concesión o la actividad desarrollada.
**n)** Justificar cuantas veces como sea requerido para ello el pago de los impuestos y exacciones municipales.
**o)** Cumplir las demás obligaciones que resulten de la Ordenaza de mercados y otras reglamentaciones, normas, etc., que afecten a la actividad.

## 11.- RESCATE DE LA CONCESIÓN

El Ayuntamiento se reserva el derecho a rescatar la concesión antes de su vencimiento, si lo justificaran circunstancias de interés público. En el caso de que la Administración Municipal ejercite esta facultad, compensará al concesionario abonando el precio del canon de concesión, de la siguiente manera:

- Si se produce a partir del 1er año, el 80% de su valor.
- Si se produce a partir del 2º año, el 60% de su valor.
- Si se produce a partir del 3er año, el 40% de su valor.



**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

emakidaren balioaren % 40.

- 4. urtetik aurrera gertatuz gero, emakidaren balioaren % 20.

- Ez da kanona itzuliko, emakidaren erreskatea 5. urtetik aurrera egiten bada.

Erreskatea emakidadunari egoztekoa den arrazoiaren ondorioz egiten ez bada, egokia izango da kalte-ordainketa egitea, une horretan indarrean dauden arauei jarraituz. Horrelakoetan, emakidadunak horniduraren udal-azokako postua Udalak ezarritako epean abandonatu eta libre uzteko konpromisoa hartuko du; aipatutako epeak hiru hilabeteko iraupena izango du gehienez ere, erreskatea egiteko erabakia jakinarazten den egunetik hasita. Bestela, atal honetan aurreikusitako kalte-ordainketak jasotzeko eskubidea era automatikoan galduko du.

## USTIAKETARI BURUZKO ARAUBIDEA

### 12.- KUDEAKETAREN ESKLUSIBOTASUNA

Salmenta-postuaren kudeaketa emakidadunaren ardura izango da eta ez beste inorena, Udal Administrazioak edo izaera orokorreko xedapenetan edo administrazio-baldintza berezien agiri honetan ezarritako beste administrazio publiko batzuek esku hartzeko ahalmenak eragotzi gabe.

Kudeaketak emakidadunaren jarduera pribatuaren izaera izango du. Udal Administrazioari ez zaio inongo kasutan egotziko emakidadunak egindako kudeaketa-jarduera.

- Si se produce a partir del 4º año, el 20% de su valor.

-sin que proceda devolución del canon si el rescate de la concesión se produce a partir del 5º año.

Fuera del caso de que el rescate fuese motivado por causa imputable al concesionario, procederá la indemnización de daños y perjuicios, de acuerdo con las normas vigentes en aquel momento. En tal supuesto, el concesionario se compromete a abandonar y dejar libre el puesto del Mercado Municipal de Abastos en el plazo establecido por el Ayuntamiento, que tendrá una duración máxima de tres meses, contados a partir de la fecha de notificación del acuerdo de rescate. En otro caso perderá automáticamente el derecho a indemnización de daños previsto en este apartado.

## RÉGIMEN DE LA EXPLOTACIÓN

### 12.- EXCLUSIVIDAD DE LA GESTIÓN

La gestión del puesto será competencia exclusiva del concesionario, sin perjuicio de las potestades de intervención de la Administración municipal o de otras Administraciones Públicas establecidas en disposiciones de carácter general o en el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

La gestión tendrá el carácter de actividad privada del concesionario. En ningún caso será imputable a la Administración municipal la actividad de gestión realizada por el


**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

concesionario.

**13.- AZOKAREN FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK**

Emakidaren xede diren salmenta-postuen titularrek aipatutako postua erabili ahal izango dute administrazio-baldintza berezien agiri honetan ezarritakoa betez, baita indarrean dagoen udal-ordenantzan zehaztutako araudia, Udal honek hala badagokio sailen bidez eman ditzakeen ildoak eta, nolanahi ere, indarrean dagoen araudia ere.

**13.- NORMAS DE FUNCIONAMIENTO DEL MERCADO**

Los titulares de los puestos objeto de concesión deberá utilizar el mismo con pleno sometimiento al presente Pliego de cláusulas administrativas particulares, a la Ordenanza Municipal vigente, a las directrices que este Ayuntamiento, en su caso, pudiera emanar a través de sus distintos Departamentos y en todo caso, a la normativa vigente.

**14.- SALMENTA-POSTUEN ERABILERA**

Emakidadunek nahitaez burutu beharko dute emandako emakidaren jarduera.

Eginkizun-espezialitatea aldatzeko, beharrezkoa izango da baimena eskuratzea; baimena hautaz emango da, baina hori ez da eragozpenik izango jarduera berria egiteko egokiak diren baimen guztiak eskatzeko.

Emakidadunak zuzenean, bere senideek edo emakidadunaren soldatapeko langileek burutu beharko dute jarduera.

Emakidadunaren eta publiko erabiltzailearen arteko harremanek ez dute eraginik izango Udal Administrazioan.

**14.- UTILIZACION DE LOS PUESTOS**

Los concesionarios vendrán obligados a desarrollar la actividad para la que se otorgue la concesión.

El cambio de especialidad funcional estará sujeto a licencia y su otorgamiento será discrecional, lo que no excluirá la solicitud de cuantos permisos sean pertinentes para la apertura de la nueva actividad.

La actividad deberá ser prestada directamente por el concesionario, sus familiares o personal asalariado de aquél.

Las relaciones entre el concesionario y el público usuario no afectarán a la Administración municipal.

**15.- ZAHARBERRITZE-LANAK AZOKAN**

Udal Administrazioak zaharberritze-lanak egin ahal izango ditu azoketan.

Emakidadunak ezin izango dio Udal Administrazioari kalte-ordainik eskatu, zaharberritze-lanen ondorioz salmentan

**15.- REFORMAS EN EL MERCADO**

La Administración municipal podrá efectuar reformas en los mercados.

El concesionario no podrá exigir a la Administración municipal indemnización por


**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

murrizketa gertatuz gero.

reducción de ventas motivadas por reforma.

**16.-AZOKA ZAINTZEA**

Udalak lizitazio honen xede den postua ematen du gaur egun duten egoeran.

Emakidadunek postua eta bertako elementuak eta instalazioak mantendu beharko ditu behar bezalako segurtasun-, osasungarritasun-, apaingarritasun-, lasaitasun- eta girotze-baldintzetan, eta beharrezkoak diren zaharberritze-, konpontze-, zaintze- edo mantentze-lanak egin beharko dituzte.

Udal Administrazioak baldintza horiek mantentzeko edo lehengoratzeko obrak edo jarduketak gauzatzeko agindua eman ahal izango du, ofizioz edo edozein interesdunek hala eskatuta.

**16.- CONSERVACION DEL MERCADO**

La cesión por el Ayuntamiento del puesto objeto de esta licitación se hace en su estado actual.

Los concesionarios quedan obligados a conservar el puesto, sus elementos e instalaciones en plenas condiciones de seguridad, salubridad, ornato, tranquilidad y ambientación, realizando las obras o actuaciones necesarias de reforma, reparación, conservación o mantenimiento.

La Administración municipal podrá ordenar, de oficio o a instancia de cualquier interesado, la ejecución de obras o actuaciones para conservar o restablecer las condiciones apuntadas.

**EMAKIDAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA**

**17.- BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA EMAKIDAREN KANONA**

Jabari publikoko emakidak egiteko antolamendu juridikoak ezartzen dituen berezko betebeharrez gain, emakidadunak honako hauek ere bete beharko ditu:

*a)* Itzultzeko bermea

**Emakidaren iraunaldia amaitutakoan, jabari publikoa itzuli behar bada emakida eman baino lehenagoko egoerara, emakidadunak Azkoitiko Udalari ordaindu beharko dio itzultze horren kostuari dagokion diru-kopurua. Ondorioz, kontratua gauzatuko dela bermatzeko,**

**RÉGIMEN ECONÓMICO DE LA CONCESION**

**17.- CONDICIONES ECONÓMICAS Y CÁNON DE LA CONCESIÓN**

Además de las obligaciones propias que el ordenamiento jurídico establece para las concesiones demaniales, el concesionario deberá cumplir las siguientes:

*a*) Garantía de reversión.

**En caso de que, finalizado el periodo de concesión, debiera revertirse el bien demanial a la situación anterior a la concesión, el concesionario deberá pagar al Ayuntamiento de Azkoitia la cantidad dineraria**



**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

**4.600,00 euroko itzultzeko bermea ezarriko da;** kopuru hori eguneratu egingo da Euskadiko Autonomia Erkidegoko kontsumoko prezioen indizearen arabera.

Itzultzeko betebeharra beteko dela bermatzeko, esleipendunak, kontratua sinatu baino lehen, berme hori eratu beharko du udaletxeko Kontuhartzailetza Sailean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2001 Errege Dekretu Legegilearen 95. artikuluan ezarritakoa betez.

*b)* Emakidaren kanona

Emakidadunek jabari publikoko ondasunak era pribatuan erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanona 2015. urtean **430,00 euro hilean** izango da, edo, bestela, esleipena emateko adostutakoa. Kanona eta itzultzeko bermea baldintza beretan berrikusiko dira, eta kanona hilero ordaindu beharko da.

Emakidaren lehenengo hilabeteari dagokion likidazioa era proportzionalean zehaztuko da, kontratua izenpetzen den hilabetea amaitzeko falta diren egunen arabera.

Emakidadunak kopuru hori udaletxeko Kontuhartzailetza Sailean ordaindu beharko du hiru eguneko epean, emakidaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

d) Beste gastu batzuk

Emakidaren kanona alde batera utzita, emakidadunak honakoak ordaindu beharko dizkio Udal Administrazioari:

**correspondiente al coste de dicha reversión. En consecuencia, para garantizar la ejecución del contrato, se establece una garantía de reversión de 4.600,00 euros**; cantidad que deberá ser actualizada conforme al índice de precios al consumo de la Comunidad Autónoma Vasca.

Para garantizar el cumplimiento de la obligación de reversión, el adjudicatario deberá, previamente a la formalización del contrato, constituir dicha garantía en el departamento de intervención municipal, conforme a lo dispuesto en el artículo 95 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

*b*) Canon concesional

El canon a pagar por los concesionarios en el año 2015 por la utilización privativa de bienes demaniales será de **430,00€ por mes** o, en su defecto, el determinado en el acuerdo de adjudicación. El canon se revisará en las mismas condiciones que la garantía de reversión, liquidándose la misma mensualmente.

La liquidación correspondiente al primer mes de concesión se determinará proporcionalmente, atendiendo a los días que falten para la finalización del mes en el que suscriba el contrato.

El concesionario deberá ingresar dicha cantidad en el departamento de intervención municipal, en un plazo de tres días a contar desde el día siguiente a la notificación de la concesión.

d) Otros gastos

Con independencia del canon concesional, el


**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

- Zerbitzua ematearen ondoriozko zergak, tasak eta era guztietako gastuak.
- Hornidurararen udal-azokan etorkizunean egin litezkeen zaharberritzeko obrak burutzeko ezar litezkeen zerga bereziak.
- Udal Ordenantzan ezarritako mantentze-gastuak ordaintzeko dauden prezio publikoak.

Kontzeptu horiek indarrean dagoen legediaren arabera ezarriko dira.

**18.- KONTRATUA HARTZEA ETA KONTRATUAREN LIKIDAZIOA**

Kontratu hau betetzat emango da bere indarraldia amaitu eta, une horretatik hasita hilabeteko epean, kontratua hartzeko edo onartzeko ekitaldi formal eta positiboa egiten denean.

Kontratua hartzeko ekitaldi formal hori egin denean, kontratazio-organoak adieraziko du, kontratua likidatzeko berariazko erabakiaren bidez, kontratistak emandako prestazioa izanden kontratua gauzatzeko eta betetzeko ezarritako zehaztapenen araberakoa, eta, bidezkoa bada, kontratuaren harrera formala egitean hautemandako akatsak konpontzeko eskatuko zaio. Kontratistari egoztekoak diren hutsegite edo akatsen ondorioz emakidaren xedea den zerbitzuaren kudeaketa kontratatutako prestazioaren araberakoa izan ez dela egiaztatzen bada, kontratuaren likidazioari uko egin ahal izango zaio, eta, hala eginez gero, egokiak diren kalte-ordainak eskatu ahal izango dira.

concesionario estará obligado a abonar a la Administración municipal:

- Los impuestos, tasas, y gastos de todo tipo originados por la prestación del servicio.
- Las contribuciones especiales que puedan establecerse para futuras obras de reforma del mercado Municipal de Abastos.
- Los precios públicos por gastos de conservación que puedan establecerse en la Ordenanza Municipal.

